



HAUR HEZKUNTZAKO JOLASTOKIAREN ERABILPENARI BURUZKO OHARRA

Haur Hezkuntzako jolastokia hainbat familiaren aisialdi esparrua bilakatu da. Arratsaldero, 17:30ak arte, gune hori zabalik mantentzen dugu familiariek, eta ikasleek bereziki, Ikastola aisialdirako aukera bezala ere goza dezaten.

Erabilpen hori, jakina, Ikastolan darabiltzagun hezkuntza irizpide berberekin jorratu behar da, hau da, une oro eskola ordutegi barruan darabiltzagun erabilpen eta garbitasun ohiturak jarraitu behar dira:

ERABILPEN EGOKIA

- Jolastokian dagoen materiala zaindu eta jaso behar da, espazioa txukun gera dadin.

- Oinarrizko garbitasun eta higiene neurriak mantendu behar dira, bai jolastokian baita komunean ere. Erabili, mesedez, zaka-rrontziak, hondakinik egon ez dadin.

- Esparruan aritzeko haurren gutxieneko segurtasun eta erabilpen neurriak errespetatu behar dira: jolastokia inguratzen duen hesi gainera, etxetxoaren teilatu gainera... ez igo.



PARTEKATUTAKO ESPAZIOA

Gogoratu, guztion gozamenerako esparru komunitario hori modu egokian zaindu beharra dagoela.

Denon esku dago espazio hori behar bezala mantentzea eta erabiltzea. Mila esker zuon laguntzagatik.

